# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-1830

AGINDUA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 2001eko martxoaren 27koa, Prestakuntza eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroen (Berritzeguneak) funtzionamendua eta antolamendua arautzen duena.

Prestakuntza eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroen (Berritzeguneak) sorrera dekretuak oinarrizko araudi esparrua finkatzen du zerbitzu berri horiek bertan garatzeko. Ikastetxeekin lankidetza izatea da zerbitzuon xede nagusia.

Ikastetxe horiek hezkuntza tresnak dira arlo edota lurralde mailan unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hezkuntza berriztatu eta hobetzeko. Dekretu berean Berritzeguneen eginkizun nagusiak definitzen dira, aholkularitza, prestakuntza eta berrikuntza, esperimentazio eta ikerketa arloetan.

Berritzeguneen eginkizun berriak, izane ere, azken urteotan gertatutako aldaketen, hezkuntza erreforma ezartzearen eta ikastetxe eta euskal hezkuntza sisteman oro har antzemandako beharrizan berrien ondorio zuzenak dira.

Gizarteko aldaketek ere beharrizan eta sentsibilitate berriak sartu dituzte, hezkuntza arloan ere erantzun egokia izan behar dutenak. Beharrizan eta sentsibilitate horiek lotuta daude gizakion elkarbizitzaren oinarrizko baloreei, hala nola, tolerantzia eta zuzentasuna, ez diskriminatzea genero, arraza edo erlijioagatik, ingurugiroa zaintzea edo bizimodu osasungarria eramatea.

Sailak lehentasunezko jardute lineak definitu ditu momentu honetan, gaur egungo hezkuntza sisteman antzemandako beharrizanei aurre egiteko; ikasleei eskaintzen zaien hezkuntza hobetzea eta kalitate hobekoa izatea da xedea, gizartearen eskarien eta bizi dugun egoera berriaren arabera. Beharrizan horiek honako arlo hauetan sortzen dira batez ere: prozesu linguistikoak, berrikuntza teknologikoa, ikasleen aniztasunarekiko arreta eta elkarbizitzarako hezkuntza, eta kalitate eta hobekuntza jarraituko prozesua. Lehentasunezko jardute lineak programa zehatzetan definitu dira. Programa horien helburua hauxe da: ikastetxeetan aldaketa, iker-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-1830

ORDEN de 27 de marzo de 2001, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula el funcionamiento y la organización de los Centros de Apoyo a la Formación e Innovación Educativa (Berritzegunes).

El Decreto 15/2001, de 6 de febrero, de creación de los Centros de Apoyo a la Formación e Innovación Educativa (Berritzegunes) establece el marco normativo básico en el que se han de desarrollar estos nuevos servicios que tiene por finalidad básica la colaboración con los Centros docentes en orden a la mejora de los procesos educativos.

Tales Centros se configuran como instrumentos educativos de carácter zonal y/o territorial para la innovación y la mejora de la educación en los niveles de enseñanza no universitaria. En el mismo decreto se definen las principales funciones de los Berritzegunes en el campo del asesoramiento, en el campo de la formación y en el campo de la innovación, experimentación e investigación.

Las nuevas funciones que se asignan a los Berritzegunes son una consecuencia directa de los cambios acaecidos en los últimos años, de la implantación de la reforma educativa y de las nuevas necesidades detectadas en los centros escolares y en el sistema educativo vasco en su conjunto.

Los propios cambios sociales introducen nuevas necesidades y sensibilidades que requieren una respuesta adecuada también en el plano educativo. Tales necesidades y sensibilidades están ligadas a los valores básicos de la convivencia humana, tales como la tolerancia y la justicia, la no discriminación por razón de género, raza o religión, el cuidado del medio ambiente o el desarrollo de una vida saludable.

En estos momentos el Departamento ha definido unas líneas de actuación prioritarias para hacer frente a necesidades detectadas en el actual sistema educativo vasco con vistas a su mejora y a un aumento en la calidad de la oferta educativa al alumnado acorde las actuales demandas sociales y a la nueva situación en que vivimos. Tales necesidades surgen sobre todo en el campo de los procesos lingüísticos, en el campo de la innovación tecnológica, en el campo de la atención a la diversidad del alumnado y en la educación para convivencia y en el campo relacionado con proceso de calidad y mejora continua. Estas líneas prioritarias de actuación

keta, berrikuntza eta esperimentaziorako prozesuak bultzatzea.

Berritzeguneetan espezialistek eta aholkulariek egon behar dute programa horietan parte hartzeko, diseinuan eta aplikazioan laguntzeko eta dagokion zonako ikastetxeetan prestakuntza eta aholkularitzaren eskariei erantzuteko.

Azkenik, ikastetxeek nork bere hezkuntza eta curriculum proiektuak garatu behar dituzte, bakoitzaren autonomiaren indarrez eta nor bere ingurura egokituz. Berritzeguneek egiteko hori erraztu behar dute etapa, ziklo eta arloko aholkularitza edota prestakuntza berezien bidez.

Egiteko horiek garatu ahal izateko, sortze dekretuak egitura organiko bat ezartzen du, Berritzeguneen gobernu organoak finkatzen dituena. Berritzeguneen aholkularien egitekoak finkatu nahi ditu agindu honek, hain zuzen ere, Berritzeguneen lanpostuen zerrenda finkatzen duen otsailaren 13ko 26/2001 Dekretuan definitutakoena.

Ondorioz, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Berritzeguneen plantilla, berritzeguneak sortzeari buruzko otsailaren 6ko 15/2001 Dekretuko I. eranskinaren arabera, honela egongo da osatuta:

– Zuzendari bat
– Etapako aholkulariak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza
– Programen Aholkulariak
– Hezkuntza Premia Berezien Aholkulariak
– Lurralde Historiko bakoitzeko Berritzeguneetako batek arloko aholkulariak eta programen arduradunak izango ditu.

Berritzegune bakoitzak idazkari-dokumentalista bat izan dezake otsailaren 6ko 15/2001 Dekretuaren 2. xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera.

*2. artikulua.*– Etapako aholkularien funtzioak ondokoak dira:

– Aholkularitza arloan:

a) Ikastetxeei alderdi didaktiko eta pedagogiko orokorrei buruzko aholkularitza eskaintzea, bai eta etapari berariaz dagokion antolamendua ere.

b) Ikastetxeekin batera prestakuntza eta berrikuntzarako proiektuen diseinuan elkarlanean aritzea, proiektu horien garapenean zehar aholkularitza eskaintzea eta horien jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea.

c) Ikastetxeei aholkularitza eskaintzea, ondoko eremu hauetan bereziki: orientabidea, tutoretza, ikasleen aniztasunaren tratamendua eta elkarbizitzeko baloreak.

se han definido como programas concretos. Tales programas tienen como finalidad impulsar en los centros escolares procesos de cambio, de investigación, innovación y experimentación.

Los Berritzegunes han de contar con especialistas y asesores en tales programas para colaborar en su diseño y aplicación y para atender a las demandas de formación y asesoramiento en los centros de la zona correspondiente.

Finalmente los centros Escolares, en virtud de su autonomía han de desarrollar Proyectos Educativos y Curriculares propios, adaptados a su particular contexto. Los Berritzegunes han de facilitar esta tarea mediante procesos de asesoramiento y/o formación específicos de etapa, ciclo y área.

Para desarrollar estas funciones el Decreto de creación establece una estructura orgánica en la que se determinan los órganos de gobierno de los Berritzegunes y la presente orden pretende regular las funciones de los diferentes asesores y asesoras de los Berritzegunes definidos en el Decreto 26/2001, de 13 de febrero, por el que se aprueba la Relación de Puestos de trabajo de los Berritzegunes.

En su virtud

DISPONGO:

*Artículo 1.*– La plantilla de los Berritzegunes conforme al Anexo I del Decreto 15/2001, de 6 de febrero, de creación de los Berritzegunes se compondrá por:

– un/a Director/a
– Asesores/as de etapas: Educación Infantil, Primaria y Secundaria
– Asesores/as de Programas
– Asesores/as de Necesidades Educativas Especiales
– En uno de los Berritzegunes de cada territorio histórico existirán asesores y asesoras de áreas y responsables de programas

Cada Berritzegune podrá tener un Secretario-documentalista conforme a la Disposición adicional 2.ª del Decreto 15/2001, de 6 de febrero.

*Artículo 2.*– Las funciones de los asesores y asesoras de etapa son:

– En el campo del asesoramiento:

a) Asesorar a los centros escolares de la zona en aspectos didácticos, pedagógicos y organizativos propios de la etapa.

b) Colaborar con los centros escolares en el diseño de los proyectos de formación e innovación, asesorarles durante su desarrollo y participar en el seguimiento y evaluación de los mismos.

c) Asesorar a los centros especialmente en los ámbitos de orientación, tutoría, tratamiento a la diversidad del alumnado y valores para la convivencia.

d) Ikastetxeekin koordinazioa izatea, Ikasketa Buruaren, Orientatzailearen, Aholkulariaren edo beste irudiren baten bidez; hain zuzen ere, informazioa eta aholkularitza bideratzeko, elkarren artean lan-mintegiak eratuz.

– Prestakuntza arloan:

a) Dagokion etaparen mailan, prestakuntzarako eskariak bideratu, egokitu eta haiei erantzutea.

b) Ezartzen diren prestakuntza-planak zonan indartu eta koordinatzea.

c) Dagokien etapan prestakuntza ematea eta egozten zaizkien prestakuntza planetan parte hartzea.

– Berrikuntza arloan:

a) Dagokion etaparen mailan, berrikuntzarako eskariak bideratu, egokitu eta haiei erantzutea, ikasgelako antolamenduari dagozkion alderdiak barne direla.

b) Hezkuntza Sailak ezarriko dituen jarduera pedagogikoak eta didaktikoak sustatzea, baita Berritzegunetik bertatik sortutakoak ere.

– Koordinaketa eta lan-taldearen arloan:

a) Urteko ekintza plana hobetzeko ideiak eta iradokizunak aurkeztea, etapetako koordinatzaileen bidez.

b) Koordinaziorako eta lankidetzarako harremanak ezartzea Berritzegunearen gainerako aholkulariekin baita beste Berritzegunei batzuetako etapako aholkulariekin ere, Sailetik jasotako aginduen arabera.

c) Beste erakunde batzuekin koordinazioa eta lankidetza izatea ikastetxeen hobekuntza-prozesuetarako, betiere Pedagogiaren Koordinazio Batzordearen proposamenez.

– Edozein arlotan:

a) Dagokion etapan Berritzeguneen funtzioak garatu, otsailaren 6ko 15/2001 Dekretuaren 2. kapituluan datozenak hain zuzen.

b) Aholkularitza, heziketa eta berrikuntza lanetan, generoaren ikuspuntua, kulturartekotasuna eta zehar balioak sartzea curriculumera, pertsonaren garapen integral eta orekatsua ahalbideratu eta bideratzen baitute dimentsio guztietan —afektiboa eta kognitiboa—, pertsonaren barruan eta kanpoan.

c) Idatziz eta sistematikoki aholkulari gisa burututako ekintza guztiak jasotzea, autoebaluaziorako nahiz hezkuntza-agintarien aldetik balorazio bat egiteko oinarri izan daitezen, baita etorkizunean arloko zerbitzu honetan sartu ahal izango diren pertsonentzako gida ere.

d) Berritzeguneko Zuzendaritzak eskatutako zereginak betetzea.

d) Coordinarse con los centros escolares por medio del Jefe o Jefa de Estudios, Orientador/a Consultor/a u otras figuras para canalizar la información y el asesoramiento, fomentando entre ellos seminarios de trabajo.

– En el campo de la formación:

a) Canalizar, adecuar y dar respuesta a las demandas de formación de la etapa correspondiente.

b) Dinamizar y coordinar en zona los planes de formación que se establezcan.

c) Impartir formación en la etapa que les corresponda y participar en los planes de formación que se les encomiende.

– En el campo de la innovación:

a) Canalizar, adecuar y dar respuesta a las demandas de innovación de la etapa correspondiente, incluidos los aspectos organizativos de aula.

b) Promover las actividades de carácter pedagógico y didáctico que el Departamento de Educación establezca o las que surjan desde el propio Berritzegune.

– En el campo de la coordinación y trabajo en equipo:

a) Presentar ideas y sugerencias para mejorar el Plan de acción anual por medio del coordinador de las etapas.

b) Establecer una relación de coordinación y cooperación con el resto de los asesores y asesoras del Berritzegune así como con los asesores de etapas de otros Berritzegunes en función de las instrucciones del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

c) Coordinarse y colaborar con otras entidades para procesos de mejora de los Centros a propuesta de la Comisión de Coordinación pedagógica.

– En cualquiera de los ámbitos:

a) Desarrollar en la etapa correspondiente las funciones de los Berritzegunes del Capítulo 2 del Decreto 15/2001, de 6 de febrero.

b) Integrar en su acción asesora, formadora e innovadora la perspectiva de género, la interculturalidad y los valores transversales al currículo que posibilitan y orientan el desarrollo integral y armónico de la persona en todas sus dimensiones, afectiva y cognitiva, ínter e intrapersonal.

c) Recoger por escrito de manera sistemática todas aquellas acciones llevadas a cabo como asesor/a con el fin de servir de base tanto para una autoevaluación y una valoración por parte de las autoridades educativas, como de guía para las personas que en un futuro puedan acceder a este servicio.

d) Desarrollar las tareas encomendadas por la Dirección del Berritzegune.

e) Arau bidez esleitutako beste edozein.

*3. artikulua.–* Programen aholkularien funtzioak ondokoak dira:

– Programaren garapeneko arloan:

a) Programen diseinuan eta lanketan parte hartzea.

b) Programaren helburuak sentsibilizatu, sustatu eta hedatu.

c) Dagokion programaren jarraipena eta ebaluazioa burutzea.

d) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari programari dagozkion hobekuntzarako iradokizunak aurkeztea.

– Aholkularitza arloan:

a) Ezartzen den programaren garapenean aholkularitza eskaintzea, ikastetxe bakoitzaren ezaugarriak eta premiak kontuan izanik.

– Prestakuntza arloan:

a) Dagokien programan prestakuntza-jarduerak burutzea eta bere inguruan lan-mintegiak edo lan-taldeak dinamizatzea.

b) Prestakuntza-jardueren eta zonan programa burutzeko beharrezkoak diren baliabideen kudeaketan elkarlanean aritzea.

– Koordinaketaren eta lan-taldearen arloetan:

a) Berritzeguneko gainerako aholkulariekin koordinazio eta lankidetzazko harremana ezartzea.

b) Baterako erantzukizuna duten erakunde desberdinekin koordinazioa izatea; edota programaren lankidetza-maila desberdinekin, Hezkuntza Administrazioak proposatuta.

– Edozein arlotan:

a) Dagokien programan Berritzeguneen funtzioak garatu, otsailaren 6ko 15/2001 Dekretuaren 2. kapituluan datozenak hain zuzen.

b) Programari lotutako egintzen garapenean, generoaren ikuspuntua, kulturartekotasuna eta zehar balioak sartzea curriculumera, pertsonaren garapen integral eta orekatsua ahalbideratu eta bideratzen baitute dimentsio guztietan —afektiboa eta kognitiboa—, pertsonaren barruan eta kanpoan.

c) Idatziz eta sistematikoki aholkulari gisa burututako ekintza guztiak jasotzea, autoebaluaziorako nahiz hezkuntza-agintarien aldetik balorazio bat egiteko oinarri izan daitezen, baita etorkizunean arloko zerbitzu honetan sartu ahal izango diren pertsonentzako gida ere.

d) Berritzeguneko Zuzendaritzak eskatutako zereginak betetzea.

e) Cualquier otra que se atribuya reglamentariamente.

*Artículo 3.–* Las funciones de los asesores y asesoras de programas son:

– En el campo de desarrollo del programa:

a) Colaborar en el diseño y elaboración de los programas.

b) Sensibilizar, promover y difundir los objetivos del programa.

c) Realizar el seguimiento y la evaluación del programa correspondiente.

d) Presentar al Departamento de Educación, Universidades e Investigación sugerencias de mejora del programa encomendado.

– En el campo del asesoramiento:

a) Asesorar en el desarrollo del programa correspondiente que se establezca, teniendo en cuenta las características y las necesidades de cada Centro.

– En el campo de la formación:

a) Impartir actividades formativas realizadas en su programa y dinamizar seminarios o grupos de trabajo en torno al mismo.

b) Colaborar en la gestión de actividades formativas y de los recursos necesarios para llevar a cabo el programa en la zona.

– En el campo de la coordinación y trabajo en equipo:

a) Establecer una relación de coordinación y cooperación con el resto de los asesores y asesoras del Berritzegune.

b) Coordinarse con diferentes entidades corresponsables o con diferente grado de colaboración en el programa a propuesta de la Administración Educativa.

– En cualquiera de los ámbitos:

a) Desarrollar en el programa correspondiente las funciones de los Berritzegune del Capítulo 2 del Decreto 15/2001, de 6 de febrero.

b) Integrar en el desarrollo de las acciones ligadas a su programa la perspectiva de género, la interculturalidad y los valores transversales al currículo que posibilitan y orientan el desarrollo integral y armónico de la persona en todas sus dimensiones, afectiva y cognitiva, ínter e intrapersonal.

c) Recoger por escrito de manera sistemática todas aquellas acciones llevadas a cabo como asesor/a con el fin de servir de base tanto para una autoevaluación y una valoración por parte de las autoridades educativas, como de guía para las personas que en un futuro puedan acceder a este servicio.

d) Desarrollar las tareas encomendadas por la Dirección del Berritzegune.

e) Arau bidez esleitutako beste edozein.

*4. artikulua.–* Hezkuntza Premia Berezien aholkularien funtzioak ondokoak dira:

– Ikasle eta bere familiekin esku-hartze arloan:

a) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen diagnostikoa, ebaluazio psikopedagogikoa eta eskolatze-proposamena egitea, baita aparteko baliabideez hornitzeko proposamena ere, hain zuzen ere, ikastetxeko irakasle tutore, aholkulari edo orientatzaileen eta pedagogia terapeutiko edota audizio eta hizkuntzako irakasleen lankidetzarekin; eta beharrezkoa ikusten denean, gelan bertan behaketa zuzena eginez.

b) Haur Hezkuntzako 2. Zikloan eskolatutako ikasleen Hezkuntza Premia Bereziak garaiz antzematea, ikastetxeak berak hala eskatu ostean.

c) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen gurasoei informazioa eta orientabidea eskaintzea, eskolatze-proposamenaren inguruko berariazko alderdiei buruz.

d) Arautegiak ezartzen duenean Curriculumaren Egokitzapen Indibidual esanguratsuetarako baimena lortzeko txostenak egitea, bai eta Batxilergoan eta Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloetan salbuespenak egiteko ere, egindako egokitzapenarekin edo salbuespenarekin ados daudela adieraziz edo aldatu behar diren alderdiak proposatuz.

– Aholkularitza arloan:

a) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin ari diren irakasleentzako aholkularitza eta norabideak eskaintzea, hain zuzen ere hezkuntza-programazioa eta ikasgelaren antolamendu-eredua ahalik eta ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesu onenari egokitzeko, bai eta eskolatze-premia osagarriak kontuan hartzeko ere.

b) Zuzendaritza-taldea eta irakasle-taldea, eta bereziki irakasle aholkulariak, orientatzaileak, tutoreak eta klaustroa orientatzea, hain zuzen ere, ikuspegi integratzaile batetik ikasleen hezkuntza-premia bereziei erantzuteko diren berariazko baliabideen erabilerari buruz eta ikastetxearen eremuan egin behar diren egokitzapenei buruz, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasle horiei egoki erantzutearren.

c) Ikastetxeetako irakasleei aholkularitza eskaintzea hezkuntza-premia berezien testuinguruan jarritako ebaluazioa egiteko, ahalik eta muga gutxienekin ikasleen ahalik eta garapen handiena sustatuko duten curriculum-egokitzapenak erraztearren.

– Prestakuntza arloan:

a) Zonaren eta hezkuntza-mailaren dinamizazioaz eta koordinazioaz arduratzea, baita eremu honetako irakasleen prestakuntza-planez, eta zehaztuko den hezkuntza

e) Cualquier otra que se atribuya reglamentariamente.

*Artículo 4.–* Las funciones de los asesores y asesoras de Necesidades Educativas Especiales son:

– En el campo de la intervención con el alumnado y sus familias:

a) Realizar el diagnóstico, la evaluación psicopedagógica y la propuesta de escolarización así como la propuesta de dotación de recursos extraordinarios del alumnado con necesidades educativas especiales con la colaboración del profesorado tutor, consultor u orientador y profesorado de pedagogía terapéutica y/o de audición y lenguaje del centro escolar y con la observación directa en el aula en los casos que se consideren necesarios.

b) Realizar a demanda del Centro escolar la detección temprana de Necesidades Educativas Especiales del alumnado escolarizado en el 2.º ciclo de Educación Infantil.

c) Informar y orientar a las familias del alumnado con necesidades educativas especiales sobres aspectos específicos referidos a la propuesta de escolarización.

d) Cuando la normativa lo establezca realizar informes para la autorización de Adaptaciones Curriculares Individuales significativas y exenciones en Bachillerato y Ciclos Formativos de Grado Medio y Superior, haciendo constar su conformidad con la adaptación realizada o la exención o proponer los aspectos a modificar.

– En el campo del asesoramiento:

a) Asesorar y facilitar orientaciones al profesorado que interviene con el alumnado con necesidades educativas especiales con relación a la adecuación de la programación educativa y el modelo organizativo del aula al óptimo proceso de enseñanza-aprendizaje de dicho alumnado así como con relación a las necesidades de escolaridad complementaria.

b) Orientar al equipo directivo, al equipo docente, especialmente al profesorado consultor, orientador y tutor, y al claustro sobre la utilización desde una perspectiva integradora de los recursos específicos destinados a la respuesta a las necesidades especiales del alumnado y sobre las adaptaciones a realizar en el ámbito del centro escolar para responder idóneamente al alumnado con necesidades educativas especiales.

c) Asesorar al profesorado de los centros con relación a la evaluación contextualizada de las necesidades educativas especiales a fin de facilitar las adaptaciones curriculares que fomenten el óptimo desarrollo del alumnado en el entorno menos restrictivo posible.

– En el campo de la formación:

a) Responsabilizarse de la dinamización y coordinación en zona y nivel educativo, de los planes de formación del profesorado en este campo y de planes especí-

bereziko pertsonalari zuzendutako berariazko planez ere.

– Koordinaketa eta lan-taldearen arloan:

a) Koordinazio eta lankidetzazko harremana ezartzea Berritzeguneko gainerako aholkulariekin eta osasun, gizarte eta lanaren eremuan eragina duten gainerako eragile komunitarioekin, hezkuntza-premia berezien eremuan erantzun orokor bat ematearren.

b) Berritzegunearen Ekintza Plana hobetzeko diren aldaketak, zuzenketak, ekarpenak, iradokizunak eta ekimenak Zuzendaritzari aurkeztea, Pedagogia Batzordeak azter ditzan.

– Edozein arlotan:

a) Dagokien programan Berritzeguneen funtzioak garatu, otsailaren 6ko 15/2001 Dekretuaren 2. kapituluan datozenak hain zuzen.

b) Ikasleen hezkuntza-premia bereziei erantzutea, Hezkuntza Berrikuntzarako Zuzendaritzak ezarritako norabideen arabera eta Berritzeguneko Pedagogiaren Koordinazio Batzordeak zonarako proposatuta eta klaustroak onetsitako Planarekin bat etorriz.

c) Hezkuntza Premia Bereziko laguntzako pertsonalarekin (logopedak, fisioterapeutak eta hezkuntza bereziko laguntzaileak) Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaritzak ezartzen dituen erlazio funtzionalak mantendu.

d) Hezkuntza berezia behar duten ikasleei bideratutako aholkularitza, heziketa eta berrikuntza lanetan, generoaren ikuspuntua, kulturartekotasuna eta zehar balioak sartzea curriculumera, pertsonaren garapen integral eta orekatsua ahalbideratu eta bideratzen baitute, dimentsio guztietan, afektibo eta kognitibo, pertsona barru eta kanpoan.

e) Berritzeguneko Zuzendaritzak eskatutako zereginak betetzea.

f) Idatziz eta sistematikoki aholkulari gisa burututako ekintza guztiak jasotzea, autoebaluaziorako nahiz hezkuntza-agintarien aldetik balorazio bat egiteko oinarri izan daitezen, baita etorkizunean arloko zerbitzu honetan sartu ahal izango diren pertsonentzako gida ere.

g) Arau bidez esleitutako beste edozein.

*5. artikulua.–* Arloetako aholkularien funtzioak ondokoak dira:

– Arloko garapen didaktikoaren eremuan:

a) Jarduera pedagogiko guztiak kontuan hartu eta sustatzea, hain zuzen ere, Hezkuntza Sailak ezarritakoak, edo Lurralde Historikoko Berritzeguneen ekimenez nahiz zonako ikastetxeen edo irakasleen eskariz sortutakoak, eskatutako arlo edo jakintzagaian, lurralde ar-

ficos para el personal de educación especial que se determinen.

– En el campo de la coordinación y el trabajo en equipo:

a) Establecer una relación de coordinación y cooperación con el resto de los asesores y asesoras del Berritzegune y con los demás agentes comunitarios que inciden desde el campo sanitario, social y laboral para dar una respuesta global en el campo de las necesidades educativas especiales.

b) Presentar a la Dirección para que sean analizadas en la Comisión Pedagógica aquellas modificaciones, correcciones, aportaciones, sugerencias, iniciativas, tendentes a mejorar el Plan de acción anual del Berritzegune

– En cualquiera de los ámbitos:

a) Desarrollar en el programa correspondiente las funciones de los Berritzegunes del Capítulo 2 del Decreto 15/2001, de 6 de febrero.

b) Atender las necesidades educativas especiales del alumnado de acuerdo con las directrices de la Dirección de Innovación Educativa y según el Plan propuesto por la Comisión de Coordinación Pedagógica del Berritzegune para la zona y aprobado por el claustro.

c) Mantener las relaciones funcionales que se establezcan desde la Dirección de Innovación Educativa con el personal de apoyo a las necesidades educativas especiales: logopedas, fisioterapeutas y auxiliares de educación especial.

d) Integrar en su acción de asesoramiento, formación y orientación dirigida a la atención al alumnado con necesidades educativas especiales la perspectiva de género, la interculturalidad y los valores transversales al currículo que posibilitan y orientan el desarrollo integral y armónico de la persona en todas sus dimensiones, afectiva y cognitiva, ínter e intrapersonal.

e) Desarrollar las tareas encomendadas por la Dirección del Berritzegune.

f) Recoger por escrito de manera sistemática todas aquellas acciones llevadas a cabo como asesor/a con el fin de servir de base tanto para una autoevaluación y una valoración por parte de las autoridades educativas, como de guía para las personas que en un futuro puedan acceder a este servicio.

g) Cualquier otra que se le atribuya reglamentariamente.

*Artículo 5.–* Las funciones de los asesores y asesoras de áreas serán las siguientes:

– En el ámbito de desarrollo didáctico del área:

a) Atender y promover todas las actividades de carácter pedagógico didáctico, que el Departamento de Educación, Universidades e Investigación establezca, o aquellas que surjan por iniciativa de los Berritzegunes del Territorio histórico, o a petición de los Centros es-

duradunaren berariazko ikuskapenaren menpe, eremuz kanpoko ezaugarria duelako.

b) Arloaren ikuspuntuari ekitea, hala maila bakoitzari dagozkion arlo diziplinar eta didaktikoetan dimentsio horizontalean nola arloaren garapen, sekuentziazio eta denboralizazioaren dimentsio bertikalean etapa eta ziklo desberdinetan.

c) Hezkuntza Sailaren programak diseinatzen eta lantzen parte hartzea, dagokion arloan.

d) Hezkuntza Sailarekin elkarlanean aritzea, eskola-materialak aztertzen, gainbegiratzen eta baimentzen.

e) Dagokion arloko berrikuntza metodologikoak ikertu eta proposatzea.

– Aholkulartitza arloan:

a) Arloko lan-taldeak eta dagokien didaktika antolatu, dinamizatu eta koordinatzea.

– Prestakuntza eremuan:

a) Dagokion arloan prestakuntza ematea.

b) Prestakuntzaren eta berrikuntzaren eskariak bideratu, egokitu eta haiei erantzutea, dagokion arloan edo jakintzagaian, zuzenean nahiz hezkuntzako beste profesional batzuen bidez.

c) Zehazten diren prestakuntza-plan guztien dinamizazioaz eta koordinazioaz arduratzea, dagokion arloan edo jakintzagaian.

d) Arloko irakasleei dagokien irakaskuntza-funtzioa garatzeko interesgarriak diren jarduerei buruzko informazioa eskaintzea.

– Koordinaketaren eta lan-taldearen eremuan:

a) Taldeko kide guztiekin koordinatuta jardutea, baina etaparen eta programaren aholkulariarekin bereziki.

– Edozein eremutan:

a) Dagokien programan Berritzeguneen funtzioak garatu, otsailaren 6ko 15/2001 Dekretuaren 2. Kapituluan datozenak hain zuzen.

b) Ezagupen arloan berariaz sustatzea generoaren ikuspuntua, kulturartekotasuna eta zehar balioak sartzea curriculumera, pertsonaren garapen integral eta orekatsua ahalbideratu eta bideratzen baitute dimentsio guztietan —afektiboa eta kognitiboa—, pertsonaren barruan eta kanpoan.

c) Idatziz eta sistematikoki aholkulari gisa burututako ekintza guztiak jasotzea, autoebaluaziorako nahiz hezkuntza-agintarien aldetik balorazio bat egiteko oinarri izan daitezen, baita etorkizunean arloko zerbitzu honetan sartu ahal izango diren pertsonentzako gida ere.

colares o profesores/as de la zona, en el área o materia encomendada, bajo una específica supervisión del responsable territorial, dado su carácter suprazonal.

b) Abordar la perspectiva del área tanto en su dimensión horizontal en los ámbitos disciplinares y didácticos correspondientes a cada nivel como en la dimensión vertical del desarrollo, secuenciación y temporalización coherentes del área a lo largo de las diferentes etapas o ciclos.

c) Colaborar desde el área correspondiente en el diseño y elaboración de programas del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

d) Colaborar con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en el análisis y revisión de materiales escolares y proyectos educativos.

e) Investigar y proponer innovaciones metodológicas correspondientes a su área.

– En el campo del asesoramiento:

a) Organizar, dinamizar y coordinar grupos de trabajo de área y su didáctica.

– En el campo de la formación:

a) Impartir formación en el área que le corresponda.

b) Canalizar, adecuar y dar respuesta a las demandas de formación e innovación, en el área o materias correspondientes, atendiéndolas directamente o a través de otros profesionales de la educación.

c) Responsabilizarse de la dinamización y coordinación, de todos los planes de formación del profesorado que se determinen, en el área o materias que le correspondan.

d) Informar al profesorado del área sobre actividades formativas interesantes para el desarrollo de su función docente.

– En el campo de la coordinación y el trabajo en equipo:

a) Actuar en coordinación con todos los/las componentes del equipo, pero de una forma relevante con el asesor/a de etapa y del programa.

– En cualquiera de los ámbitos:

a) Desarrollar en el área correspondiente las funciones de los Berritzegunes del Capítulo 2 del Decreto 15/2001,de 6 de febrero.

b) Fomentar específicamente en su área de conocimiento la perspectiva de género, la interculturalidad y los valores transversales al currículo que posibilitan y orientan el desarrollo integral y armónico de la persona en todas sus dimensiones, afectiva y cognitiva, ínter e intrapersonal.

c) Recoger por escrito de manera sistemática todas aquellas acciones llevadas a cabo como asesor/a con el fin de servir de base tanto para una autoevaluación y una valoración por parte de las autoridades educativas, como de guía para las personas que en un futuro puedan acceder a este servicio.

d) Berritzeguneko Zuzendaritzak eskatutako zereginak betetzea.

e) Arau bidez esleitutako beste edozein.

*6. artikulua.*– Programen arduradunen funtzioak ondokoak dira:

– Programaren garapeneko eremuan:

a) Berariazko programari dagokion diseinuaren lanketa koordinatzea, Hezkuntza Berrikuntzarako Zuzendaritzak zehazten dituen orientabideei jarraituz, lurralde arduradunaren berariazko ikuskapenaren menpe, eremuz kanpoko ezaugarria duelako.

b) Programa aurrera eramateko beharrezkoak diren jardueren plangintza koordinatzea.

c) Lurraldean eta EAEn, Berritzeguneetako aholkulariak koordinatzea, irizpideak eta jardunbideak bateratzeko.

d) Programaren eremuan jarduten duten edota esku hartu ahal izango duten Saileko edo beste Sail, Unibertsitate edo erakundekoetako bestelako zerbitzu eta organismoekin koordinatu.

– Prestakuntza eremuan:

a) Programaren garapenarekin zerikusia duten prestakuntza-jarduеretan parte hartzea, prestakuntza eskainiz edo horretarako behar diren baliabideak kudeatuz.

– Edozein eremutan:

a) Dagokien programan Berritzeguneen funtzioak garatu, otsailaren 6ko 15/2001 Dekretuaren 2. Kapituluan datozenak hain zuzen.

b) Arduradun diren programak egitean eta programaren jarraipen eta heziketa egintzetan, generoaren ikuspuntua, kulturartekotasuna eta zehar balioak sartzea curriculumera, pertsonaren garapen integral eta orekatsua ahalbideratu eta bideratzen baitute, dimentsio guztietan, afektibo eta kognitibo, pertsona barru eta kanpoan.

c) Idatziz eta sistematikoki aholkulari gisa burututako ekintza guztiak jasotzea, autoebaluaziorako nahiz hezkuntza-agintarien aldetik balorazio bat egiteko oinarri izan daitezen, baita etorkizunean arloko zerbitzu honetan sartu ahal izango diren pertsonentzako gida ere.

d) Berritzeguneko Zuzendaritzak eskatutako zereginak betetzea.

e) Arau bidez esleitutako beste edozein.

*7. artikulua.*– Idazkari dokumentalistaren funtzioak ondokoak dira:

a) Berritzeguneko administrazio-lanak egitea, bertako administrazioaren funtzionamenduan laguntzeko eta eskainitako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

d) Desarrollar las tareas encomendadas por la Dirección del Berritzegune.

e) Cualquier otra que se atribuya reglamentariamente.

*Artículo 6.*– Las funciones de los o las responsables de programas serán las siguientes:

– En el campo de desarrollo del programa:

a) Coordinar la elaboración del diseño del programa especifico siguiendo las orientaciones que se determinen desde la Dirección de Innovación Educativa, bajo una específica supervisión del responsable territorial, dado su carácter suprazonal.

b) Coordinar la planificación de las actividades necesarias para llevar adelante el programa.

c) Coordinar territorialmente y en la CAPV a los asesores y asesoras de los Berritzegunes para la unificación de criterios y de las pautas de actuación.

d) Coordinarse con otros servicios y organismos tanto del Departamento de Educación, Universidades e Investigación como de otros Departamentos, Universidad o instituciones que actúen o puedan intervenir en el ámbito del programa.

– En el campo de la formación:

a) Participar en las actividades formativas relacionadas con el desarrollo del programa impartiendo formación o gestionando los recursos necesarios para ello.

– En cualquiera de los ámbitos:

a) Desarrollar en el programa correspondiente las funciones de los Berritzegunes del Capítulo 2 del Decreto 15/2001, de 6 de febrero.

b) Integrar en la elaboración del programa del que son responsables y en las acciones de seguimiento y formación ligadas con el programa la perspectiva de género, la interculturalidad y los valores transversales al currículo que posibilitan y orientan el desarrollo integral y armónico de la persona en todas sus dimensiones, afectiva y cognitiva, ínter e intrapersonal.

c) Recoger por escrito de manera sistemática todas aquellas acciones llevadas a cabo como responsable de programa con el fin de servir de base tanto para una autoevaluación y una valoración por parte de las autoridades educativas, como de guía para las personas que en un futuro puedan acceder a este servicio.

d) Desarrollar las tareas encomendadas por la Dirección del Berritzegune.

e) Cualquier otra que se atribuya reglamentariamente.

*Artículo 7.*– El/la secretario/a documentalista tendrá las siguientes funciones:

a) Desempeñar las labores administrativas del Berritzegune en orden a apoyar el funcionamiento administrativo del Centro y a mejorar la calidad del servicio prestado.

b) Berritzeguneko dokumentu desberdinen lanketan eta kudeaketa ekonomikoan Zuzendariarekin elkarlanean aritzea.

c) Berritzeguneko dokumentazioa osatzen duten artxiboez arduratzea: funtzionamendu-gastuak, hirugarrenei egindako ordainketak prestakuntza emateagatik, Berritzeguneko ekintza desberdinetan parte hartu dutenen zerrendak eta abar.

d) Informazio, erreprografia eta dokumentazioari dagozkien zerbitzuez arduratzea.

e) Berritzeguneko zuzendariak eskatutako zereginak betetzea.

f) Arau bidez esleitutako beste edozein.

*8. artikulua.–* Berritzeguneei dagozkien funtzioak EAEko irakasleen kidegokoak eta eskalakoak diren funtzionarioek beteko dituzte, Zerbitzu horretako Lanpostuen Zerrendari dagokion otsailaren 13ko 26/2001 Dekretuan plaza bakoitzerako ezarritako baldintzak betetzen dituztenak hain zuzen.

*9. artikulua.–* 15/2001 Dekretuaren I. eranskinean zerrendatutako lanpostuak Hezkuntza Administrazioak deitutako merezimendu-lehiaketa bidez beteko dira, otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitatekoez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzkoak, bere 33. artikuluan arautzen duenaren arabera (otsailaren 25eko EHAA)

*10. artikulua.–* Hezkuntza Sailak, aipatutako Legea garatuz, pertsonalak burututako lanaren ebaluazioa egingo du, bide emateko horrelako zerbitzuen lanpostuetan epe-mugarik gabe jarraitzeko, Berritzeguneak sortzeari buruzko otsailaren 6ko 15/2001 Dekretuaren 3. Xedapen gehigarrian dionaren arabera, betiere lanpostuari lotutako funtzioak jarraitzea beharrezkotzat jotzen denean.

*11. artikulua.–* Berritzeguneetako behin betiko pertsonalak irakaskuntzan jardun ahal izango du berriro berak eskatutako zerbitzu-eginkizunak betetzeko. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak destinoa duen zonan zerbitzu-eginkizunak bete ahal izateko modua aurkituko du.

*12. artikulua.–* Berritzeguneetako langileen aldi baterako ordezkapenak lanpostuen kasuan kasuko deialdietan arautuko dira. Ordezkapen horiek kasu jakin batzuetan eskaini ahal izango zaizkie, lanpostuaren ezaugarrien eta ordezkapenaren iraupenaren arabera, betekizunak bete arren zerbitzu horietan lanposturik lortu ez duten irakasle funtzionarioei.

*13. artikulua.–* Berritzeguneak funtzionamenduan sartuko dira, artu ere, dagozkien lanpostuak Agindu honen 9. artikuluaren arabera eta Berritzeguneak sortzea-

b) Colaborar con el Director/a en la elaboración de los diversos documentos del Berritzegune y en la gestión económica.

c) Llevar los archivos de la documentación del Centro: gastos de funcionamiento, pagos a terceros por la formación impartida, relaciones de participantes en las diversas acciones del Centro.

d) Atender los servicios de información, reprografía y documentación.

e) Desarrollar las tareas encomendadas por la Dirección del Berritzegune.

f) Cualquier otra que se atribuya reglamentariamente.

*Artículo 8.–* Las funciones propias de los Berritzegunes se realizarán por funcionarios y funcionarias pertenecientes a los cuerpos y escalas docentes de la CAPV que cumplan los requisitos establecidos para cada una de las plazas en el Decreto 26/2001, de 13 de febrero, por el que se aprueba la Relación de Puestos de Trabajo de dicho Servicio.

*Artículo 9.–* Los puestos de trabajo relacionados en el Anexo I del Decreto 15/2001 se cubrirán por concurso de méritos convocado por la Administración educativa, tal y como se regula en el artículo 33 de la Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV de 25 de febrero).

*Artículo 10.–* En desarrollo de la citada Ley el Departamento de Educación evaluará el trabajo realizado según lo dispuesto en la Disposición adicional 3.ª del Decreto 15/2001, de 6 de febrero, de creación de los Berritzegunes para permitir el desempeño de puestos en estos servicios con carácter indefinido, siempre que se considere necesaria la continuidad de las funciones ligadas al puesto de trabajo.

*Artículo 11.–* El personal con carácter indefinido de los Berritzegunes podrá volver a la docencia en Comisión de Servicios a solicitud propia. El Departamento de Educación, Universidades e Investigación buscará los medios para que el interesado o interesada pueda acceder a una Comisión de servicios en la zona en la que está destinado.

*Artículo 12.–* Las sustituciones temporales del personal de los Berritzegunes se regulará en las convocatorias de plazas, pudiéndose ofertar dicha sustitución en determinados casos, en función de las características del puesto y de la duración de la sustitución, a los funcionarios docentes que cumpliendo los requisitos no hubieran obtenido plaza en dichos servicios.

*Artículo 13.–* Los Berritzegunes entrarán en funcionamiento en la fecha en que los puestos de trabajo correspondientes a los mismos sean provistos de confor-

ri buruzko otsailaren 6ko 15/2001 Dekretuaren aldi baterako 2. xedapenaren arabera betetzen direnean.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Berritzeguneetako lanpostuetan aldi baterako adskribitutako pertsonalak ezin izango du parte hartu hizkuntza eskakizunak lortzeko, epe luzeko eta orduak liberatzea berekin dakartzaten euskalduntze-ikastaroetan. Euskalduntzeko beste ikastaro batzuetan parte hartzeko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak onespena eman dezake Berritzegunearen zuzendaritzak proposatuz gero eta Lurralde arduradunaren on iritzia edukiz gero.

Bestalde, dagokion Berritzeguneko zuzendaritzaren onespen gabe, eta Pedagogi Berrikuntzarako lurralde buruaren on iritzirik gabe ezingo du orduak liberatzea berekin dakartzaten prestakuntza ikastaroetan parte hartu ere.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko martxoaren 27a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

midad con lo dispuesto en el artículo 9 de esta Orden y la disposición transitoria 2.ª del Decreto 15/2001, de 6 de febrero, de creación de los Berritzegunes.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El personal adscrito temporalmente en plazas de Berritzegunes no podrá participar en cursos de euskaldunización de larga duración que conlleven liberación horaria y estén dirigidos a la obtención de perfiles lingüísticos. Para otros cursos de euskaldunización la Dirección de Innovación Educativa podrá autorizar la participación a propuesta de la Dirección del Berritzegune correspondiente y el Visto Bueno del responsable Territorial.

Así mismo tampoco podrán participar en cursos de formación que conlleven liberación horaria sin la autorización expresa de la Dirección del Berritzegune correspondiente y el visto bueno del Responsable Territorial de Renovación Pedagógica.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de marzo de 2001.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

## Zk-1831

AGINDUA, 2001eko martxoaren 27koa, unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI) funtzionamendua eta antolamendua arautzen duena.

Unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI) sorkuntza arautzen duen otsailaren 6ko 14/2001 Dekretuak oinarrizko arau esparrua finkatzen du zerbitzu berri hori garatu ahal izateko bertan. Zerbitzu horren oinarrizko xede da unibertsitateaz kanpoko irakas-sistemaren ebaluaketa orokorra egitea, hezkuntza ikerketa sustatzea unibertsitateaz kanpoko arloan eta hezkuntza arloari lotutako dokumentazio eta baliabideen zerbitzua edukitzea.

Erakunde hau laguntza zerbitzu gisa egituratzen da eta bere jardute esparrua Euskal Autonomia Erkidegoa da. Erakundeak ebaluazio, ikerketa eta dokumentazio arloan garatu beharreko egitekoak ere finkatzen dira dekretu berean. Ebaluazioaren arloan unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetarako edota berariazko arloetarako

## N°-1831

ORDEN de 27 de marzo de 2001, por la que se regula el funcionamiento y organización del Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa no universitaria (IVEI).

El Decreto 14/2001, de 6 de febrero, de creación del Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa no universitaria establece el marco normativo básico en el que se ha de desarrollar este nuevo servicio que tiene por finalidad básica realizar la evaluación general del sistema educativo no universitario, promover la investigación educativa en el ámbito no universitario y mantener un Servicio de documentación y de recursos relacionados con el ámbito educativo.

Este Instituto se configura como un servicio de apoyo a la educación cuyo marco de actuación es el de la CAPV En el mismo decreto se determinan las funciones que ha de desarrollar este Instituto en el campo de la evaluación, en el campo de la investigación y en el campo de la documentación. En el campo de la evalua-